

Teknologia zentzuz

Funtsezko konpetentzia digitalak garatzen ditu

Modu kritiko eta seguruan ikertzen, sortzen eta komunikatzen ikasten dute.

Ikaskuntza pertsonalizatzen du

Erritmoa, maila eta formatua ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea ahalbidetzen du.

Etorkizun pertsonal, akademiko eta profesionalerako prestatzen du

Ingurune digitalak bizileku izango duten munduaren zati dira: bertan konfiantzaz mugitzeko trebatzen ditugu.

Berehalako feedbacka ematen du

Tresna digitalek aurrerapenari buruzko informazioa eskaintzen dute denbora errealean.

Baliabideen aukera handia eskaintzen du

Bideo hezitzaileak eta irakurketa digitalak, baita modu dinamikoan praktikatzeko tresna interaktiboak ere.

Eredu hibridoaren abantailak

Autonomia eta erantzukizuna bultzatzen ditu

Antolatzen, erabakiak hartzen eta beren ikaskuntza kudeatzen ikasten dute.

Inklusioa sustatzen du

Ikasle bakoitzak bere erara ikas dezan, ikusizko, entzumenezko eta lankidetzako kanalak konbinatzen ditu.



Kontua ez da soilik teknologia erabiltzea, zentzuz, helburu jakinarekin eta ondoan egonda erabiltzea baizik.

Familiantzako gomendioak

Gailu digitalen erabilera zentzuzkoa eta orekatua etxean

1. Deskonexioko errutinak finkatzea

Adostu pantailarik gabeko uneak (otorduak, lotara joan aurretik edo familiarekin partekatzekeko une bereziak). Atsedeen digitalak ere hezten du.

2. Erabilera aktiboa sustatzea

Bultzatu sortzeko, ikertzeko, komunikatzeko... teknologia erabiltzera, eta ez soilik entretenitzeko. Jarri interesa egiten duten horretan.

3. Espazio komunak, ikusgai dauden pantailak

Ahal den neurrian, gailuak partekatutako eremuetan erabili beharko lituzkete. Hala, modu naturalean ondoan egon ahal izango duzue.

4. Irakurketa partekatua edo gidatua bultzatzea

Elkarrekin irakurri, edozein euskarritan. Dagoeneko bakarrik irakurtzeko gai badira, jarri interesa irakurtzen duten horretan: egin galderak, hitz egin irakurritakoari buruz. Irakurketak batu eta pentsarazi egiten du.

5. Interesa eta konfiantza erakustea

Ez da beharrezkoa adituak izatea: nahikoa da gertu egotea, entzutea eta partekatzea. Arlo emozionalak arlo teknikoak baino garrantzi handiagoa du.

6. Arau argiak adostea

Adinaren arabera, jarri arrazoizko mugak, eta hitz egin horiei buruz. Inplikatu gero, konpromiso handiagoa hartuko dute beren gain.

7. Arlo digitalari buruz elkarrikitza egitea

Galdetu zer ikusten, zer egiten eta zerk kezkatzen dituen. Hitz egiteak debekatzeak baino gehiago prebenitzen du.



“Ondoan izatea ez da kontrolatzea: presente egotea, ohitura osasuntsuak sortzea eta konfiantzan hezte da.”